

ESKAINTZA

Baratzezaintza biologikoan trebatzeko gunea Xarrikota Pean



■ TREBATU elkarteak eta « Laborantzako Trebatze Gunea »

TREBATU elkarteak, « Laborantzako Trebatze Gunea » kudeatzen du ipar Euskal Herri eta Landes hegoaldean. Elkartea ingurune desberdineko 10 egiturek osatzen dute :

- laborantza mundua (AFI, AFOG, APFPB, BLE, EHLG, Lurzaindia)
- laborantza formakuntza (AGROCAMPUS 64)
- ekonomia sozial eraldatzaia (CAE Interstices)
- kontsumitzaileen ordezkariak (Inter AMAP Pays Basque)
- Euskal Hirigune Elkargoa.

Trebatze gunea, laborantzan instalatzeko xedea duten eta beren proiektua egiazko baldintzetan entseatu nahi duten pertsoner zuzendua da, instalazio proiektua baieztatzeko helburuarekin.

Elkarteak proiektu eramaileari honakoak proposatzen ditu :

« Inkubagailu » funtzioa	« Laguntza eta segipen » funtzioa
Aktibitatea juridiko, fiskalki eta kontableki bere gain hartzen du Trebatuk ; horretarako proiektu eramailearekin CAPE (<i>Enpresa proiektua sustengatzeko kontratua</i>) kontratua izenpetzen da (urte bateko kontratua bi aldiz arraberri daitekeena).	Trebatzearen lorpena bermatzeko eta instalazio proiektua prestatzeko: - Enpresa kudeaketan laguntza, - Segipen humanoa, - Hilabetero hitzorduak, - Segipen teknikoa eta formakuntza kolektiboak (proiektu eramaileen arteko trukaketekin) Trebaturen kide diren egituren partetik.
« Mintegi » funtzioa	« Animazio eta koordinazio » funtzioa
Trebagune ekipatu bat bere esku jartzen da (lurrak, lan tresnak).	Dispositibo osoa kudeatzen du Trebatuk: lurraldeko partaideekin eta administrazioarekin lotura, barne eta kanpo komunikazioa.

Horrez gain, proiektu eramaileak beharko du:

- « laborari zurrkaltz » bat izendatu, kontseiluak emanen dizkiona eta bere hautu estrategikoetan lagunduko duena,
- « lekuko sustengu talde » bat osatu, eskualdean sare bat osatzen lagun dezaten.

Trebatu, RENETA, Frantziako laborantzako trebaguneen sarearen barne da.

■ Etxaldea - Trebagunea

Kokapena: Xarrikota Pean - Xiberoan
(*etxaldea hitzordu bat finkatuz baizik ez daiteke bisita*)

Etxaldea : gunea 2 pertsona trebatzeko antolatua da, (bakarka lan egin nahi duten 2 pertsona, bikote bat edo geroan elkarrekin lan egiteko asmoa duten bi pertsona,...).



- 3Ha zelai (hektarea bateko 3 lur zati), bidetik hurbil
- 4 negutegi (orotara 1128m² aterbe, ekipatuak, bazterreko idekidurekin)
- Landareak ekoizteko negutegi bat (100m² - ez ekipatua)
- Ureztatze sistema, negutegietan eta zelaian
- Aterbea, biltegi batekin (62m²)
- Behar diren tresna haundi guztiak : traktorea, lurra lantzeko eta prestatzeko materiala, landareen kudeatzeko materiala, ereitekoa, landatzekoa eta beste ...
- Lurrak laborantza biologikoan dira.

Salmenta ahalmena: merkatuaren azterketa batek, inguruko salmenta ahalmena erakutsi du: AMAP zareak, enpresa zareak, e-zareak, saltegiak.

- Trebatzeak gehienik 3 urte irauten du.
- Maiatzetik goiti trebagunean bizitegi bat ukaiteko aukera

BALDINTZAK	EGIN BEHARRAK
➤ Laborantzako diploma (BPREA, BTS edo beste) hautatu ekoizpenean eta esperientzia praktiko minimo bat. ➤ Langabezia edo sozial laguntzak ukan, edo lanaldi partzialean izan, CAPE kontratuaren iraupen osoan. ➤ Aktibitate hasieran aitzinatu behar diren gastuak estaltzeko diru zama ukan (5000€ inguru/pertsonaka).Trebatur finantzamenduak xerkatzen laguntzen ahalko du. ➤ Lurraldean laborantzan instalatzeko xedea ukan.	➤ Hautagaitza txostena* osatu eta igorri berantetik abenduaren 20eko *(<i>txostena telekargatzeko</i> : www.reneta.fr/trebatu / www.arrapitz.eus/trebatu) ➤ Proiektua, beharrak eta egin beharrak zehazteko aitzin elkarrizketa bat ➤ TREBATU elkarteko kidez osatutako batzorde baten aitzinean proiektua aurkeztu ➤ CAPE kontratuaren izenpedura ➤ Trebatzearen abiatzea : 2020eko urtarrileko bigarren hamabostaldian

Xehetasun gehiagorentzat edo etxaldea bisitatzeko, Trebaturekin harremanetan sar zaitezte (06.49.43.49.42 eta trebatu@outlook.com)

HAUTAGAITZA TXOSTENA ABENDUAREN 20ko IGORRI BEHAR DA,
TREBATU elkarteko lehendakari jaunari zuzenduz, ondoko helbideetara :
« TREBATU elkarte - Haize Berri - 64120 IZURA-AZME » eta trebatu@outlook.com